

2023ko bigarren hiruhilekoan esportazioen prezioak % 12,3 igo dira Euskal AEn

Inportazioen prezioek % 11,1 egin dute gora

2023ko bigarren hiruhilekoan, esportazioen prezioak % 12,3 igo dira 2022ko hiruhileko beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, % 1,7ko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek joera bera izan dute; izan ere, % 11,1 igo dira urtetik urtera, eta % 3,0 2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Esportazio “energetikoen” prezioak % 9,5 igo dira aurreko urtearen aldean, eta “ez-energetikoenak” % 12,6. Aurreko hiruhilekoaren aldean, ondasun “energetikoen” prezioak % 0,3 igo dira, eta “ez-energetikoenak” % 1,7.

Inportazioen kasuan, produktu “energetikoen” prezioen indizeak % 5,4 egin du gora, urtetik urterako tasan, eta “ez-energetikoenak” % 12,6. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio “energetikoak” % 9,8 igo dira, eta “ez-energetikoak” % 0,6.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2023/II

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,7	12,3	3,0	11,1
Energiazko gailak	0,3	9,5	9,8	5,4
Energiazkoak ez diren gailak	1,7	12,6	0,6	12,6
Kontsumo-ondasunak	0,4	14,3	2,6	7,3
Kapital-ondasunak	0,1	5,8	5,7	15,7
Bitarteko ondasunak	2,7	13,7	2,8	11,1

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hila beraren aldean

Data 2023ko Irailaren 29a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** arabera sailkapenari jarraituz, Kontsumo-ondasunen (% 14,3), Bitarteko ondasunen (% 13,7) eta Kapital-ondasunen (% 5,8) esportazioen prezioek gora egin dute aurreko urtearen aldean. 2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, garestitu egin dira hiru sektoreak: Bitarteko ondasunak %2,7 hazi dira, Kontsumo-ondasunak % 0,4 eta Kapital-ondasunak % 0,1.

Inportazioak aztertuta, agerian geratzen da hazkundea orokorra izan dela, bai urtetik urterako konparazioan, Kapital-ondasunak (% 15,7), Bitarteko ondasunak (% 11,1) eta Kontsumo-ondasunak hazi baitira (% 7,3), bai hiruhilekoen arteko alderaketan.

Esportazioen xede diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, prezioek goranzko joera erakusten dute eremu guztietan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. ELGAn % 11,1 egin dute gora, EB-28n % 10,2, eurogunean % 8,9 eta munduko gainerako herrialdeetan % 20,3.

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, joera errepikatu egiten da, baina askoz ere motelago: prezioak pixka bat igo dira eremu ekonomiko guztietan, batez ere munduko gainerako herrialdeetan (% 5,6); gainerako eremuetan igoera txikiagoa da: EB-28n eta ELGAN % 1,1eko hazkunde-tasa dute, eta eurogunean % 0,6koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2023/II

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,7	12,3	3,0	11,1
Euro eremua	0,6	8,9	3,5	10,0
EB-28	1,1	10,2	4,7	9,8
ELGE	1,1	11,1	3,8	13,2
Munduko besteak	5,6	20,3	0,9	6,4

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2023ko Irailaren 29a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Eremu geografiko guztietako inportazioetan ere prezioek gora egin dute. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, EB-28 nabarmentzen da (% 4,7), eta, 2022ko hiruhileko berarekin alderatuta, ELGAREN hazkundera nabarmentzen da (% 13,2).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62